

ERASOA ESTATU BATUEN AURKA AZKEN 20 URTEKO ATENTATUAK

Estatubatuarrak eraso ugariren jomuga

Azken 20 urteotan Estatu Batuetako Administrazioak, militarrek edo interes ekonomikoek hainbat atentatu jasan dituzte, Estatu Batuetan bertan edo beste herrialde batzuetan. Atentatu horietako askok harreman zuzena dute Washingtonen Ekialde Hurbileko gatazkan Israeli ematen dion erabateko sostenguarekin.

1983KO APirilak 18. Bonba-auto batek txikitu egin zuen Estatu Batuek Beiruten zuen enbaxada. 63 lagun hil ziren. Une horretan Libano gerran zegoen, eta Israelek herrialde horren hegoaldea okupaturik zuen.

1983KO URRIak 23. Lehergailuz kargatutako kamioi bat sartu zuten Beiruten Estatu Batuetako *marine*-en kuartelean: 241 soldadu hil ziren.

1983KO ABenduak 12. Estatu Batuek eta Frantziak Kuwaiten dituzten enbaxaden aurkako atentatuak. Bonba-autoek hosto lagun hil zituzten eta beste 86 zauritu.

1984KO IRailak 20. Beste atentatu bat Estatu Batuek Beiruten duten enbaxadaren aurka. 16 lagun hil zituen bonba-autoak eta 96 zauritu, haien artean EEBBeko eta Erresuma Batuko enbaxadorea.

1987KO AZARoak 14. Txokolate kuxka batean ezkutatutako lehergailuak eztanda egin zuen Beiruteko Unibertsitate Estatubatuarrereko Ospitalean: zazpi hil eta 37 zauritu.

1988KO ABenduak 21. Estatu Batuetako Pan Am konpainiaren hegazkin bat airean ezandarazi zuten

eta Lockerbie herrixkaren gainean (Es-kozia) erori zen. 287 lagun hil ziren, haietatik 189 EEBBekoak. Libiako zerbitzu sekretuetako agente bat zigortu zuten atentatu horrengatik eta beste bat errugabetu.

1995EKO APirilak 19. Bonba-auto batek 168 lagun hil eta 400 zauritu zituen Estatu Batuetako Gobernu Federalak Oklahoman zuen egoitzan. Integristak susmagarri izan arren, gero jakin zen EEBBeko eskuin muturraren ekintza izan zela. Timothy McVeigh egilea heriotza zigorrera kondenatu zuten, eta aurtengo ekainaren 11n hil zuten espetxe federal batean.



AP Suhiltzaileak Oklahomako bonbaren ondoren.



JOHN MC CONNICO / AP 1998ko abuztuaren EEBBeko Kenyako Nairobin zuten enbaxadaren aurkako atentatua.

1996KO EKAINak 25. Lehergailu batek zart egin zuen EEBBeko Saudi Arabiako Dahrán hirian duten base militarren aurrean. 19 militar hil zituen bonbak, eta beste 386 lagun zauritu.

1998KO ABUZTUak 8. Lehergailu indartsuek eztanda egin zuten Estatu Batuek Kenya eta Tanzaniako hiriburuetan dituzten enbaxadetan, Nairobi-n eta Dar Es Salaamen. 258 lagun hil zituzten bonbak, eta 5.000 gehiago zauritu. Washingtonen Osama Ben Laden islamista integristaren taldeari leporatu zizkion atentatuak, eta eraso egin zuten ustez hark Sudanen eta Afganistanen zituen kanpamenduei. Ben Ladenen jarrai-

tzaile ugari hil zituzten eraso horiek, baina buruzagia onik irten zen. Enbaxaden aurkako atentatuan ustez parte hartu zuten lau lagun preso daude.

1999KO AZARoak 12. Estatu Batuek Islamabaden (Pakistan) zuten enbaxadara eta informazio bulegora bederatzi lehergailu jaurti zituzten parean lagatako autoetatik. Egun horretan bertan eraso egin zieten Nazio Batuek Islamabaden duten bulegoari. Guztira sei lagun zauritu ziren, inor ez larri. Afganistanen aurkako zigorrekin lotu zituzten atentatuak.

2000KO URRIak 12. Aden-eko (Yemen) portuan zegoela eraso egin zioten EEBBeko *USS Cole* gerraontziari. 17 marinel hil eta 30 zauritu ziren.



JACKSON / AP 1993ko bonbak 30 metroko zuloa ireki zuen World Trade Centerreko aparkalekuan.



RICHARD LEE / REUTER Sei lagun hil eta beste mila zauritu zituen 1993ko bonbak.

Iker Aranburu | DONOSTIA

Bigarren aldia da New Yorkeko World Trade Center edo Dorre Bikiak atentatuen jomuga direna. Izan ere, 1993ko otsailaren 26an, dorre bateko aparkalekuan jarritako bonba indartsu batek sei lagun hil zituen.

Egileek 600 kilo dinamita jarri zituzten lurrazpiko aparkalekuaren jaitsierako aldapan. Leherketa izugarrikoa izan zen, 30 metroko diametroko zuloa ireki baitzuen lurrean. Bonbak bi dorreen lurrazpiko lau solairuak txikitu zituen, eta New York eta New Jersey arteko trenen geltokiko teilatua ere apur-

Bigarren atentatua Dorre Bikietan

WORLD CENTERRI ERASOA. 1993ko otsailan, bonba batek sei lagun hil zituen World Trade Centerren, eta bi musulman integrista zigortu dituzte horrengatik

tu zuen. Ondoren piztutako suteak izua eragin zuen World Trade Centerren.

Une horretan 55.000 lagun ari ziren bi dorreetan lanean edo haiek bisitatzen. Keak bulegoak estali zituen, dozenaka lagun igogailuetatik atera ezinik geratu ziren, langileek beirak apurtu zituzten amastu ahal izateko, eta helikopteroek teilatura igotako ehunka lagun salbatu behar izan zituzten. Sei lagun hil zituen leherketak, eta milatik gora izan ziren zaurituak.

Bi kondenatu

Lehen unetik, Estatu Batuetako agintariek ziurtatu zuten islamista integristak izan zirela

atentatuaren egileak. 1994ko maiatzean lau militante islamista 240 urteko espetxe zigorrera kondenatu zituzten atentatuan parte hartu zutelakoan.

1995eko urriaren 1ean, bederatzi hilabeteko epaiketa luze baten ondoren, hil arteko kartzela zigorrera kondenatu zuten Omar Abdel Rahman *xeik* edo buruzagi izpirituala. Egiptoko Jamaa Islamiya talde islamiarreko buru zen Omar Abdel Rahman. 1996ko urtarrilaz geroztik ari da zigorra betetzen.

1998ko urtarrilean, berriz, beste ekintzaile islamista batek, Ramzi Jussef-ek, hil arteko kartzela zigorra jaso zuen atentatua antolatzeagatik.